

NI, ZU... ETA BESTEAK

Ainhoa Larrunbe Uriz, 16 urte

Olaitz

I.

Bakarrik sentitzen naiz munduan,
lehen polita zena orain gaitz bihurtu baitzait.
Jarraitu beharreko bide luze honetan
ez daukat arnasa hartzeko astirik
horregatik begiak ixten ditut
ez bainaiz bizitzen jarraitzeko gai.

II.

Gauza bat datorkit burura,
ez da zure irria, ez da zure itxura.
Egun osoan ideia hura,
eta orain bai sentitu dudala beldurra.
Zure arima sartu zait barrura
eta konturatu naiz dena zela gezurra.
Elkarrekin bizitakoa erori da putzura
eta orain ihes egin nahi dut kanpoko mundura.

Zoriontasun beteriko mundu honetan
denak egiten dit min.
Egun dizdiratsu guztiak

guztiak zurekin.
Bihotza beterik izan arren
buruan dena da desberdin.
Ez dakit zer den gertatzen zaidana
baina, zertarako jakin?
Erotzen hasia naiz
eta ez dut nahi gehiago negar egin.
Ez dut nahi gure ipuina amaitzerik
ez dut nahi gure artekoa ohe barrura mugatzerik
ez dut nahi zure irribarreaz ahaztu,
ez dut nahi errealitate gordinera itzuli,
ez dut nahi berriz ere maitasuna sentitu,
ez dut nahi...

III.

Sinesten dut mundu batean
non denak berdinak garen besteen aurrean.
Sinesten dut gizarte batean
non pobreak dauden aberatsen parean.
Sinesten dut herri batean
non askatasuna ezaguna den guztien artean.
Sinesten dut kultura batean
non denok egiten dugun hizkuntza berean.
Sinesten dut olerki batean
non dena polita den paperaren gainean.

IV.

Lau paretan barrenean
hasi naiz idazten,
barruan sentitzen dudana
gorputzean ez baitzait sartzen.

Kanpoan daukadan guztia
ez dut inoiz ahazten,
nahiz eta paretak
beti egon mugatzen.
Egun osoa askatasun kontuetan
ematen dut pentsatzen,
hala ere, badakit
jarraitu behar dudala preso izaten.